



Etorritakoak: Koldo Nuñez, Irantzu Garcia, Amaia Zubiete, Maddalen Antuñano, Marga Iparragirre, Gizane Serrano, Begoña Serrano, Carlos Quintana, Basili Zamarripa, Arrate Beristain, Iker Gil, Iñaki Calvo, Begoña Alcedo, Miren Orbea, Noemi Pastor, Fernando Landaburu (dinamizatzaile eta aktalari lanetan).

1. EUSKARALDIAREN BIGARREN EDIZIOA AURKEZTU

- Aurreko edizioan egindako ikerketa soziolinguistikoaren emaitzak (euskaraldia.eus webgunean [ikusgai](#)) komentatu ditugu.
- Hurrengo edizioa **2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra** izango da (**15 egunetan**).
- *Belarriprest* eta *ahobizi* dinamikan oinarrituko da berriz ere.
- Ariketa sozialean bi parte hartzaile mota egongo dira: **herritarrak** eta **entitateak** (erakunde publikoak, gizarte eragileak, enpresak, kultur eta kirol elkarteak, eta abar) egongo dira.
- Berrikuntzen artean, **arigune** izeneko kontzeptua izango da: entitatean ohiko dinamika duen taldea, euskaraz aritzeko. Barne funtzionamendurako edo kanpo harremanetarako. Ikus [bideoa](#).
- Portugaleteko Euskaraldia batzordeak **bigarren edizioan parte hartzea** erabaki du.
- Portugaleteko entitateen behin-behineko mapa egin dugu: Portugaleteko Txistu Zaleak, Elai Alai, Gaurko Gazteak, Berriztasuna, Oroituz, Harituz, PAS (Portugaleteko Aisialdi Sarea), Koadrilak, San Nikolas Arraun Taldea, Portugalete Futbol Taldea, Atletismo Portugalete, Oribeltza Saskibaloia Taldea, Xake Taldea.
- Hasiko gara gure sare sozialak aktibatzen: Instagram, Facebook, webgunea.

2. BATZORDEAREN ANTOLAKUNTZA ZEHAZTU

- Gaurko bileran 16 kide egon gara, eta hasiera eman diogu aldi berriari.
- Koordinazio taldean Noemi Pastor eta Fernando Landaburu egongo dira.
- Hiruhil honetan (urri, azaro eta abenduan) bilera bat edo bi baino ez dugu egingo. Urtariletik aurrera, berriz, ikusiko dugu zein maiztasun izango dugun.
- Hurrengo bilera **azaroaren 13an**, asteazkenean, egingo dugu 19:00etan, Santa Klaran, Euskara Egunaren inguruko kale-ekintza zehazteko.

3. EGUTEGIA

- **Entitateei aurkezpena egiteko prestakuntza mintegia:**
 - Urriaren 16an, asteazkenean, Bilbon (bost pertsona apuntatu gara).
- **Kale-ekintza:**
 - 2019ko Euskara Egunaren (abenduak 3) inguruan.
- **Herriak egitasmoak apuntatzeko epea:**
 - Abendura arte. Portugaletek aste honetan bertan emango du izena.
- **Entitate aitzindarien agerraldia:**
 - Azaroaren 20an.
- **Entitateak apuntatzeko epea:**
 - 2019ko azarotik 2020ko uztaileira.
- **Pertsonak apuntatzeko epea:**
 - 2020ko irailetik aurrera.
- **Euskaraldia ekimena:**
 - 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra.